

BALEIKE



199. ZENBAKIA. EURO BAT
2011ko MAIATZA

www.baleike.com

HAUTESKUNDEAK 2011 HAUTSA KENTZEKO ORDUA



ELKARRIZKETAK ALKATETZARAKO ZERRENDABURUEKIN



Casa BASUSTA



**CASA
BASUSTA**
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611



BALEIKE 199

7

hauteskundeak

HAUTAGAIAK AURREZ AURRE

AZALA g. zabaleta



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

4

hitz-tantak

MARI NIEVES ETA

JOSE ALVAREZ

11

Bildu

IÑAKI AGIRREZABALAGA

15

EAJ/PNV

MONTSE ARANA

19

Ezker Abertzalea

ELKARTU ETA

HERRI BEZALA

ERANTZUTEKO

GARAIA DA

21

Aralar

AITOR LEIZA

23

Hamaikabat

PILAR ETXABE

26

PSE

EMILIANO CABAÑAS

30

ipuina

IRAKURLEA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiko Udala



“Dendan ere ikasi dugu euskaraz”

TESTUA: AITOR MANTEROLA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA



Euskaraz ala gaztelaniaz egingo dugu elkarrizketa?

Mari Nieves Alvarez: Bi hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz.

Dendara sartu naiz, eta esan dizuet: “Laranjak nahi ditut”. Nola erantzungo didazue?

Jose Alvarez: Nolakoa nahi duzu?

Nik: “Zenbatean dago kiloak?”

Mari Nieves: Bi euroan, adibidez.

“Jarri kilo bat”, eskatu dizuet, eta hizketan jarraitu dugu. Euskaraz dendan ikasi al duzue?

Mari Nieves: Bai, bai!

Jose: Dendan eta euskaltegian. Urtebete egin nuen. Orain ezin dugu, ez daukagu denborarik.

Mari Nieves: Nik ere urtebete egin nuen. Anaiak bezala, denbora faltagatik utzi nuen. Batzuetan, bazkaltzeko ere larri ibiltzen nintzen. Denbora izango banu, joango nintzateke orain ere.

Hortaz, teoria euskaltegian



ikasi zenuten, eta mintzapraktika dendan egin.

Mari Nieves: Euskaltegian ere hitz egin nuen.

Jose: Lehen, baserrietan ere saltzen genuen, eta han jarduten nuen euskaraz baserritarrekin. Euskaraz eta gaztelaniaz, bietan ondo moldatzen nintzen.

Mari Nieves: Kalean ikasten da, azkenean.

Zergatik erabaki zenuten euskara ikastea, dendan jendearen aurrean lan egin behar duzuelako edo uste duzuelako ikasi egin behar dela?

Mari Nieves: Semearen bidez hasi nintzen,

gurasoentzako euskarazko klaseak ematen zituzten-eta. Gero, konturatu nintzen haurrek ez zidatela ulertzen, eta erabaki nuen ikasi egin behar nuela. Pena izan zen guri ez zigutela erakutsi euskaraz eskolan.

Euskara ikasten ari direnek esaten dute zaila dela. Ados al zaudete?

Jose: Bai, zaila da.

Mari Nieves: Kosta egin zait hitz egitea, pentsatzen jartzen naizelako edozer gauza esango dudala.

Euskaldun berriak zarete, eta ia denei lotsa ematen dizue euskaraz hitz egin hastea. Zuei ere bai?

Mari Nieves: Ba, nik galdu dut dagoeneko. Nahiz eta indioen moduan hitz egin. Jose: Ni lotsatu egin naiz. Zenbait jenderen aurrean gehiago.

Mari Nieves: Hori egia da. Zenbaiten aurrean erreparoa ematen dizu hanka sartzeko arriskuak. Baina ez da beraiegatik. Gure aurreiritziak dira.

Jose: Badaude bezero euskaldunak gaztelaniaz eginen digutenak, badakitelako guk ez

dakitugula ondo euskaraz. Guk ere adineko jende euskaldunari, gaztelaniaz hitz egiteko arazoak dituztenei, euskaraz hitz eginen diegu.

Zuzendu al dizue akatsik bezero euskaldunen batek?

Mari Nieves: Ez, ez. Jose: Nik ere ez nuke egingo hori.

Bezero euskaldun guztiekin aritzen al zarete euskaraz?

Jose: Beraiek agintzen dute, euskaraz hasten bazaizkigu, guk euskaraz eginen diegu.

Mari Nieves: Bezeroak “Egun on” esaten badit, nik euskaraz egingo diot. “Buenos dias” esaten badit, gaztelaniaz. Gertatu izan zait euskaraz hasi, eta uneraren batean ez aurrera, ez atzera gelditzea. Eta bezeroa harrituta: “Uste nuen bazenekiela euskaraz”.

Jose: Gaztelaniaz hasten zaizkigun euskaldunei euskaraz erantzuten diegu.

Euskaldun berriak ere izango dituzue bezero. Konplizitatea sortzen al da zuen artean?



Fruta gustukoena jateko? Jose: Laranja. Mari Nieves: Denak. **Berdura?** Mari Nieves: Denak, eskarola kenduta.

Jose: Denak. Gehien saltzen duzuen? Mari Nieves: Laranja. **Jose: Banana.**

Jose Alvarez Chorro

Jaioteguna: 1962ko otsailaren 10a.

Jaioterria: Zumaia

Ikasketak: Lanbide Heziketako 2. maila.

Mari Nieves Alvarez Chorro

Jaioteguna: 1960ko urtarrilaren 17a.

Jaioterria: Zumaia

Ikasketak: Batxilergoa eta Lanbide Heziketako 1. maila, administrazioa.

Jose: Zailtasunak dituzte euskaraz aritzeko, eta gaztelaniara jotzeko joera izaten dute.

Mari Nieves: Hobeto moldatzen naiz euskaldunekin, egia esan. Baina arazorik ez dut inorekin.

Euskaldun bat etorri, eta gaztelaniaz hasten zaizuenan, zer pentsatzen duzue?

Mari Nieves: Ezer ez. Bueno, edukazio onekoa dela, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dauzkagula jakin eta gaztelaniaz egiten digulako.

Jose: Egoera horiek denak naturaltasunez bizi ditugu. Mari Nieves: Naturaltasunez pasatzen gara euskaraz hitz egitetik gaztelaniaz aritzera, eta alderantziz. Nahiago nuke zazpi hizkuntza jakingo banitu!

Bezeroak ohitura hartu al dute euskaraz eskatzeko?

Jose: Bai, bai. Mari Nieves: Joserekin ohitura handiagoa daukate nirekin baino, nik ez dut hain ondo hitz egiten-eta euskaraz.

Jose: Bai zera! Nik indioek bezala hitz egiten dut-eta!

Euskara eta denda lotuta daudenez zuen kasuan, dendari buruzkoa da galdera hau. Noiz ireki zenuten?

Mari Nieves: Hogeita hamar bat urte izango dira. Jose: 1980an.

Zergatik fruta denda?

Jose: Gure aita lanik gabe gelditu zen.

Mari Nieves: Orduan ere krisia zegoen, eta zerbait egin beharra zegoen.

Jose: Lan bila ibili zen, ez zuen ezer aurkitzen, eta garbi esan zigun: edo zerbait irekitzen dugu edo Extremadurara goaz bueltan. Aitak eta biok taberna jarri nahi genuen, baina gure ama zenak eta Mari Nievesek ez. Mari Nieves: Nik banekin zer gogorra den ostalaritzan lan egitea, eta ezta pentsatu ere!

Nondik dator Chorro izena?

Mari Nieves: Abizena da, amarena. Maria Chorro zen.

Denda irekin zenuteneko garaiak eta oraingoak ez dira berdinak. Erosteko ohiturak ere aldatuko ziren, ezta?

“Gaztelaniaz hasten zaizkigun euskaldunei euskaraz erantzuten diegu”

Mari Nieves: Bai, ezberdina da.

Jose: Lehen, hiru kilo sagar eta hiru kilo laranja eskatzen zuen jendeak, adibide bat jartzearen.

Mari Nieves: Baina horrek badu azalpena. Familiak aldatu egin dira, lehen sei-zazpi persona bizi ziren batera, eta orain gutxiago. Gainera, etxean ere gutxiago bazkaltzen da. Erosteko eta jateko ohiturak aldatu egin dira. Jose: Fruta ere ugaritu egin da, aukera gehiago dago orain.

Mari Nieves: Aukera gehiago dago, baina lehen ere bazen. Gertatzen dena da orduan jendeak lau

gauza jaten zituela.

Jose: Gainera, guk ez genuen oraingo baliabiderik aukera horiek denak ekartzeko.

Aitak hasi zuen bidea semea-alebekin, zuekin, eta zuen seme-alabekin segituko al du?

Mari Nieves: Auskalo, auskalo!

Denda txikien etorkizuna beltza al da?

Jose: Bai, oso beltza.

Mari Nieves: Hurrek jaten dutenaren arabera izango da. Ez dakit nahiko ote duten eguneko produktua, hainbeste egindako jakirekin eta azkar egiten den janarekin.

Jose: Jendeak esaten du produktu onenak denda txikietan egoten direla, baina gero, erosketak egitera, saltoki handietara joaten dira. Horiei uzten diete egiten guri uzten ez digutena.

Mari Nieves: Jende heldua bizi dadila urte askoan, guk negozioarekin jarraitu ahal izateko.

Jose: Gazteei berdin zaie zer jan. Helduak hasten dira elikadura hobeto zaintzen. ■

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309

Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20

**L
I
B
R
U
D
E
N
D
A**

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI

dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

ALBERDI

Dj July

Musika onena eskontzetan,
kintoen ospakizunetan eta
era guztietako festetan

600 982 810
july_alberdi144@hotmail.com

ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157
anasetxekozeapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA

D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea
tel. 943 117 406

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5
Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943 862 532

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 861 631

ARGISUN

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girotea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argin.com
info@argin.com

OKINDEGIA
Artxupe

Napuzki 2. tel. 943 861 921
ZUMAIA

OGI-EDER

ARRUTI

Galtasar Etxabe 2/9
Zumala 943016429

AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5
tel. 943 861 485

Finis, French, euskara, ingeles, euzkialdi, katalanien, suahili, baso, katala, finnoa, frantses, anglos, aleman, frantsesa, katalaniera, finnois, ingeles, basko, katalan.

Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net

Basodi
albaitaritzza

Albaitaritzza
Itzi Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310
velen@basodi.net
www.basodivet.com

Göteborg: 11-13 / Armtalok: 15-19:30 / Astelotuen goizean eta larunbelean ikita
Lamiak/Elbarako: 606 728 707 Ebeze ebeko zerbitzua

BASUSTA
ERRETEGIA

Patallia Etxezarreta, 25
tel. 943 862 073

BATELA

ARRANDEGIA

Izustarri, 2-4
Tel. 943 860 750

Braky's

Okindegia Kafeategia

Izoga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
TL: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

HAUTAGAIK AURREZ AURRE

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ETA GORKA ZABALETA

Maiatzaren 22an daukagu alkate berria aukeratzeko hitzordua. Espainiako Auzitegi Gorenak Sortu legez kanpo utzi ondoren, Bilduren parte hartzea ere kolokan egon da azken unera arte. Aldizkari berezi honetan alkatetzarako hautagai direnen proposamenak ezagutzeko aukera izango duzu, hauteskundeen inguruko informazio osagarriarekin batera.

BALEIKE INKESTA

ZER EGINGO ZENUKE
ALKATE BAZINA?

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JON URBIETA

MILA BRAVO

69 URTE, JUBILATUA

Nik egingo nukeen lehendabiziko gauza frontoia izango litzateke. Ez zitzaidan batere ondo iruditu Beheko plazan egin zena, ez frontoiarena ez eta kioskoa kendu izana ere. Baina, hala ere, herria oso polita dagoela esango nuke. Jubilatuentzat egin den eraikin berria nabarmenduko nuke. Hori bai, hurrengo alkateari zera esango nioke: lehendabiziko herrikoak eta gero kanpokoak.



AITZIBER ODRIEZOLA

38 URTE, MERKATARIA

Umeentzat jarduerak egingo nituzke, aterpe duen plaza, eta, ahal baldin bada, bi kontu horiek herri erdian. Amaiaiko plazari sekulako aldaketa emango nioke, dauden jardin horiek kenduz eta beste zerbait jarritz, metro asko baitaude, bertan ekitaldiak egin ahal izateko. Udan ere jarduerak antolatuko nituzke, eta horiek ez daitezela festetan bakarrik egin. Eta azkenik, jendea animatu nuke tabernak eta ostatuak zabaltzera, azken finean, halakoak egiten badira kanpoko jendea erakartzea lortuko genukeelako. Eta kanpotik datorrenarentzat aparkaleku publiko bat jarriko nuke, Eibarkoaren antzekoa: lehen bi orduak doan eta handik aurrera kobratzen hasi.




JANIRE BRACAMONTE

18 URTE, LANGILEA

Gazteentzako toki alternatibo bat, zeren, nahiz eta gaztetxea eta gaztegunea egon, azkenean bi toki horietan betiko jendea elkartzen da, eta besteoi bitartean ez zaigu besterik geratzen, tabernaz taberna ibiltzea baino.

Udan ere kontzertuak antolatuko nituzke, baina ez r o c k a



eta halako estiloak, baizik eta mota ezberdinetako musika. Adibidez, Zarautzera Nena Daconte eta Fangoria eraman behar dituzte.

HARITZ JIMENEZ

23 URTE, IKASLEA

Gaur egun nire iritziz zumaiarrron kezka nagusiak direnak konpontzen saiatuko nintzateke. Arazo larriena gazteon kasuan etxebizitzarena da, baina espekulazioak dirauen artean ez dut uste konponbiderik d a - goenik, eta egotekotan, gazteak garen beste askori inporta zaionik. Dena dela, hutsik dauden etxeen alokairua bultzatu beharko litzateke, horretarako ekimenak martxan jarritz.

Beste arazo bat frontoiarena da. Ez dut ulertzen zer demontre ari den gertatzen, baina uste dut azkar konpontzen ez bada, Zumaiaran dagoen zestarako tradizio hori galdu egin daitekeela gazteen artean. Bestalde, ez legoke gaizki udan egin zen bezala, kontzertuak dauden gaueetan edo herriko festak direnean udaltzainen patruila bat ibiltzea gauez kaletan zehar, batzuetan sortzen diren arazoak saihesteko balioko luke eta. Azkenik, krisialdi garai honetan lanik gabe geratu diren zumaiarrentzat, tailerrak eta hitzaldiak antolatu beharko liratekeela uste dut, etorkizunean gauza lagungarriak erakustez gain, hauentzat egun "luze" diren horiek motzago izaten lagunduko lukete eta.



PEDRO SERNA

57 URTE, JUBILATUA

Nik egingo nukeen lehendabiziko gauza Narruondo ibaia garbitzea izango litzateke, batik bat lehen Ortiz konserba-fabrika zegoen eskuinalde hura.

Marea behean dagoen bakoitzean berri-berri dauden edukiontzia ikus daitezke bertan, plastikozko poltsa pila eta ordenagailuko monitore bat edo beste ere bai. Bestalde, herrikoei autoa gutxiago erabil dezateela eskatuko nieke, eta hori posible ez bada, aparkaleku gehiago egin ditzatela. Beheko plazako frontoian egin duten paretak ez zait



oso estetiko iruditzen. Kartzelako pareta ematen duen frontoi hura parean izanda, ez dut uste frontoiaren bestaldean egiten ari diren etxe berri horiek erosiko nituzkeenik.

MIKEL AROZENA 38 URTE, LANGILEA (IBARRAKOIA)

Nik lehendabiziko gauza udaltxean bertan lan egiten duten guztiei soldatak jaitsiko nizkieke, ez Zumaiaiko Udalarari bakarrik baizik eta politiko guztiei. Ni Ibarakoa naiz eta Zumaia nator noizean behin lan egitera, baina niri hemengo izanda ez litzaidake gustatuko kanpoko enpresa bati deitzea; nik uste lehendabizi Zumaia enpresei eskaini beharko litzaietela lana, batik bat lan publikoak egiteko orduan. Horrela, nik ez nituzke aguantatu beharko hemen Zumaian kotxea aparkatzeko komeriak.



FELIX AZPITARTE

ETA JEXUS

GOROSTOLA

69 URTE, 81 URTE,
JUBILATUAK

Errioa garbitu, marea behean dagoenean aguantaezina da-eta moilan pasieran ibiltzea,

hori alde batetik. Eta bestetik herrian segurtasuna handitzea, azkenaldian lapur asko dabil herrian bueltaka-eta. San Pedro festetan santelmoetan bezain adina festa izatea, zeren Zumaiaiko patroia San Pedro da eta ez San Telmo. Garai batean sanpedroek izaten zuten garrantzi hori berreskuratzea polita izango litzateke. Alondegian inbertitu den diru hori, lehenago, benetako frontoi bat egiten gastatuko genuke. Eta azkenik, hurrengo alkate izan behar duena atsegina- goa izan dadila herritarrekin.

JOSUNE ETA IZASKUN

Nik egingo nukeen lehendabiziko gauza frontoia izango litzateke. Ez zitzaidan batere ondo iruditu Beheko plazan egin zena, ez frontoiarena ez eta kioskoa kendu izana ere. Baina, hala ere, herria oso polita dagoela esango nuke. Jubilatuentzat egin den eraikin berria nabarmenduko nuke nik. Hori bai, hurrengo alkateari zera esango nioke: lehendabizi herrikoak eta gero kanpokoak.



Jendaurreko mahai-ingurua hautagaiekin

Aurten zumaiarrek aukera berri bat izango dute hautagaien proposamenak ezagutu eta alderatzeko. Izan ere, jendaurreko mahai-ingurua antolatu du Baleikek alkatezarako hautagai direnekin. Oxford areto berrituan izango da, maiatzaren 17an, 19:00etan.

PPren hautagaitza

Alderdi Popularraren zerrendaburua elkarriketatzeko saioa egin du Baleikek, baina eskaerak erantzunik jaso ez duenez, hautagaien zerrenda jarri baino beste informazioarik ezin eman. Zerrenda: 1. Antonio Pareja Cabello, 2. María Auxiliadora Ariza Moreno, 3. María Dolores Fuentes-Guerra Serrano, 4. Victor Casinos Avilés, 5. Manuel Pareja Manso, 6. José Carlos Gomez Rodriguez, 7. Darío Montiel Grande, 8. Beatriz Carmona Gallardo, 9. Ramón Abaroa Pries, 10. María Concepción García Escudero Torroba, 11. Miguel Ramón Martínez Flores, 12. Luís Fernando Montero Moreno, 13. Luz Graciela Cabrejos Cruz.

2007ko emaitzak

EAJ/PNV	1.158	%26,15	4
EAE-ANV	1.062	%23,98	3
EA	763	%17,23	2
EB-Aralar	619	%13,98	2
PSE	602	%13,59	2
PP	158	%3,57	0

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigrunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsi@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



Erribera, 8

tel. 943 861 694



V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045



ERROTA
OPIL-OKINDEGIA
SANTIXO AVUZA, 32
20750 ZUMAJA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
erota@erota-okindegia.com

NORTASUN-AGIRIENTZAKO
ARGAZKIAK **10**
Minutuan



ERTZ informatika
Behoko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAJA
Parafarmazia • Belar-denda
Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Urne eta haurrentzat, deietakoak, kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dieta, Naturopatia, Idoklogia, Flores de Bach, Masajak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lasatzeak, Etsaren Arretatzearen, Buruko minen, Zirkulazio arazoak... kontrakoak), Akupuntura: horietekin eta horietatik gabe

BASADI KALEA, 3 - BEHA - ZUMAJA

Galdona



burdindegia

Mendara marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



kafetegia

Txomin Agirre kaia

Tel. 943862181



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabiloia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



GOIKO TABERNA

Erribera, 9

tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

Gure Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaja
Tel.: 943 86 09 70

English School
Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis

tel. 943 143 334

Iñaki **AGIRREZABALAGA**

BILDUKo zerrendaburua

“Indar handiarekin datorren koalizioa da Bildu”

Bilduren zerrendak osatzea “lan handia eta zaila” izan dela aitortu du, baina harro dago lortutako emaitzaz. Berak badaki zer den Ezker Abertzalearekin elkarlanean aritzea, eta aukera aprobeztatu du gobernukideak gogora ekartzeko: “Eskerrak eman nahi dizkiet Andoniri [Etxaniz], Nereari [Epelde] eta Josebari [Azipiazu] lau urte hauetan egin duten lan guztia-gatik. Zoritxarrez, ez dute aurkezteko aukerarik izan. Baina zorionez, talde berri bat osatzeko gai izan gara, eta denon artean lan txukuna egingo dugu”. Elkarrizketa hau egin zenean, artean Bilduren zerrendak inpugnatu gabe zeuden.

Zer da Bildu? Nortzuk osatzen duzue?

Ezker ikuspuntua eta helburu soberanista dituen plataforma bat da, koalizio bat, jende anitzez osatua.

Jende anitzez esaten duzunean, zer jendez ari zara?

Kultura politiko ezberdinetatik gatozen alderdiak gara. Eusko Alkartasunak eta Alternatibak osatzen dugu Bildu, gehi jende independenteak. Kapaz izan gara proiektu komun bat lantzeko, bi printzipio politiko nagusi horietatik harago.

Espero al zenuten hauteskundeetan parte hartzeko hainbeste zailtasun izatea?

Egia esan, ez genuen halakorik espero inondik inora. Auzitegi Gorenaren epaia kolpea izan zen guretzat. Batez ere eman zituen arrazoiak. Gu ETAREN estrategiaren barruan geundela esatea latza izan zen, kontuan hartuta gutako jende asko ETAREN biktima dela. Baina herritarrak konturatzen dira horrek ez duela ez hanka ez buru, eta Madrilen martxan jarritako estrategia bat baino ez dela.

Batzuk ez dira konforme gelditu Konstituzionalaren epaiarekin eta lupak zorrozteko eskatu dute.

Garbi gelditu dena da PPK sekulako indarra duela. Herri hau aro politiko baten aurrean dago eta horri oztopoak jarri nahi dizkiote.

Lau urte egin dituzu alkatetzan. Zer balorazio egiten duzue?

Egindako lanari dagokionez, uste dut positiboa izan dela. Ba-



GORKA ZABALETA

NOR DA?

Zumaian jaioa, 1977an. Zuzenbide ikasketak egin zituen, amaitu gabe dituen arren. Zortzi urte daramatza Udalean, lehenik zinegotzi eta azken lau urteak alkate. Kantatzea du zaletasun, San Pedro abesbatzako kide da, “parte hartzeko denbora gehiegi ez” duen arren. Hain ezaguna ez den beste afizio bat ere badu: “Hegazkinak gustatzen zaizkit, hegazkin komertzialak. Gaiaren inguruko aldikari bat ere erosten dut”. Gipuzkoako EAKo presidente da, eta Zumaian Bilduko zerrendaburu izateaz gain, Batzar Nagusietarako ere aurkeztu du bere burua: “Batzarkide eta alkate izatea erabat bateragarria da. Alkate asko dira batzarkide, PSEkoak, PNVkoak... Aldundian zer dagoen jakitea aberasgarria da herriarentzat”.

tez ere, Udala herritarrari hurbildu nahi izan diogu, parte hartzeko prozesuak martxan jarritz. Hori nabaritu dela iruditzen zait. Bestalde, obrei dagokienez, oposizioak kontrakoa esango duen arren, agerikoa da obra dezente egin ditugula, ez bakarrik herrigunean, auzoetan ere bai: Artadiko uren saneamendua, Narruondora bidegorria eramango dugu, Jadarre auzoan egiten ari garen lanak; eta herrigunean, Moilaberriko zubia, Txomin Agirre eta Mendaro Marinelako lanak, kultur etxe berria Alondegian... Eta gizarte zerbitzuak ere indartu egin ditugu, krisiaren ondorioei erantzuteko.

1. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta
2. Acis Alberdi Zaldunbide
3. Maitane Agirre Arrieta
4. Iñaki Ostolaza Esnal
5. Arritxu Gonzalez Elosua
6. Eneko Agirre Maiora
7. Marina Bidasoro Arozena
8. Peru Fernandez Arroiabe Txapartegi
9. Arantxa Gajate Telleria
10. Miren Lorea Esteibar Aperribai
11. Ainhitze Egaña Mendizabal
12. Oihana Zulaika Alkorta
13. Jone Miren Telleria Arrieta

Eta esperientzia pertsonala?

Gogorra izan da. Alde batetik, indarrak oso parekatuak egon direlako. Uste dut PNVk ez duela onartu plenoak ni aukeratu izana alkate eta oztopoak jarri besterik ez dute egin. PSEk ere berdín. Horri gehitzen badiogu bere burua baino ordezkatzan ez duen pertsona batek bere karguari eutsi diola edozeren gainetik, horrek indar oreka hankaz gora jarri du eta legegintzaldiaren amaieran hainbat gai atzera bota dizkigute.

Orduan, nolatan erabaki duzu berriro aurkeztea?

Bada, babes handia jaso dudalako, bai alderdi barruan, bai gobernukide izan direnengandik. Jarraitzera animatu naute, datorren legealdia ezberdina izango dela pentsatzen dugulako.

Lau urte hauetarako zeintzuk dira zuen ildo nagusiak?

Orain arte egindakoari segida ematea. Gaur egun Udala egoera ekonomiko osasuntsuan dago, baina horrek ez du esan nahi edozer egiteko gai garenik. Ezin dugu inbertsio handirik agindu. Baina gure filosofiari eutsiko diogu: herritarrengana hurbiltzea, auzoetara iristea, eta parte hartzeko prozesuak. Beharrezkoak diren inbertsioak egingo dira, baina oso puntualak izango dira. Batez ere, San Jose auzoari eskaini beharko diogu gure arreta, besteak ahaztu gabe.

Komentuarekin zer?

Idea definituta gelditu zen, baina, gauzak garbi esanda, mar-txan jartzeko baliabideak behar dira. Beste administrazioekin

elkarlana bilatu beharko dugu proiektu sendo bat aurkeztu eta baliabide ekonomikoak lortzeko.

Foronda?

Kultur etxearen osagarri izango da, kultur arloan dauden taldeei bideratutako eraikina. Kudeaketa eta zaintza atezain baten bitartez egitea ari gara aztertzen.

Beheko estazioa?

Jakina da aurreakordioa lortu genuela Jaurlaritzarekin eraikina erosteko, baina azken unean Portuetako sailak atzera bota zuten. Haren ondotik beste eskaintza bat egin digute, mahai gainean dago, baina ondo aztertu behar da. Gure iritziz eraikinak interes berezia dauka eta ahalegina egin beharko genuke berreskuratzeko. Nahikoa garbi daukagu turismo bulegoa eta herriko industria ondareari buruzko erakusketa jartzeko leku egokia dela.

Beheko plaza?

Beheko plaza txukundu egingo da, baina ez sekulako lanak eginez, etorkizunean, egoera ekonomikoa aldatzen denean, lurrazpiko aparkalekua egiteko aukera izanez gero, plaza berriro altxa beharko delako.

Zein da Bilduren proposamena zaborren kudeaketarako?

Lehenik eta behin, errauskailua egin aurretik ikusi behar da beste zer alternatiba dauden. Errauskailua behar zela erabaki zen garaian ez zeuden atez ateko esperientziak. Hori dena aztertu egin behar da, gero erabakitzeke errauskailua behar dugun edo ez. Hori da Bilduk esaten duena.

Geoparkea ekimen interesgarria al da?

Nik uste dut baietz. Egia da bere garaian Ezker Abertzalearen partetik zalantzak planteatu zirela, baina uste dut modu egokian ari garela lantzen, ez dago soilik turismoari begira enfokaturta. Ingurumena eta kultura ere lantzen ari gara. Helburua ez da soilik turismorako marka bat lortzea, bertako ekoizleak bultzatzea ere bai.

Mugi zerbitzua izan da zuen ikurretako bat. Mugikortasun planean sakontzeko beste urratsik?

Batez ere, planifikatuta dagoen bidegorri sarea handitzen joatea. Mugi zerbitzuarekin jarraituko dugu, beharrezko zerbitzua iruditzen zaigulako eta gaur egun 600 erabiltzaile baino gehiago dituelako.

Zer emaitza espero dituzue maiatzaren 22an?

Irabaztea eta gobernatzea da gure helburua, eta gertatu direnak gertatuta, inoiz baino gogo handiagorekin.

“Gure
filosofiari
eutsiko diogu:
herritarra-
rengana
hurbiltzea”

bildu zumaia

Izan zaitez
ikusi nahi duzun
aldaketa

eman
botoa



API
Ibaitzain
 inmobiliaria

Ricardo Azkue
 API 399

Txomin Agirre 4, behea
 tel. 943 862 651
 faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

Idoia
 Moda dena
 Androginitan espezializatzen

Julio Beobide, 2 behea Tel. 943 86 03 01
 idoia@maia@gmail.com

Shinza

ilarzi

Alai auzategia, 2
 Tel. 943 24 50 20

IRIONDO JATETXEA

Txikiardi
 auzoa
 Tel. 943861390
 675715017

Gure espezialitatea:
 arrainak eta baragia parrillan

IRUITZ

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 860 760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotatuak...

Itzurun Zuhazbidea, 2 behea
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI ZUMAI

943 862 083

JUARISTI
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
 Eguneko menua
 Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

KABI Patxia Etxezarotz 15
 943 117 427

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
 Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari

Upela plaza, 8
 tel. 943 862 517

Kresala
 Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869

kuttun
 lentzeria

erribera kalea tel. 943117936

Larraitz ile-apaindegi
 leon imakun-azentrat

Basadi auzategia 5 behea
 Zumai
 tel.: 943 14 30 41

malaun

Montse **ARANA PEREZ**

EAJren zerrendaburua

“Herria **denon artean** gobernatzea gustatuko litzaidake”

Hitzordu garrantzitsua da aurtengoa EAJrentzat. 2007ko udal hauteskundeetan bozka gehien jaso zituen alderdia izan bazen ere, ez zen gai izan alkatezari eusteko. Etapa baten amaiera izan zen hura jeltzaleentzat. Alkateza berreskuratzearen ardura udaletxean esperientzia duen emakume honengan jarri zuen EAJk: hiru legealditan zinegotzi izan da Montse Arana eta zortzi urtetan udaletik kanpo egon eta gero, indarberrituta itzuli da.hh

Hautagaien zerrendan aldaketa handiak izan dira oraingoa.

Ikusten genuen etapa bat amaitu zela. Aurreko hauteskundeak irabazi bagenituen ere, ez ginen gai izan alkateza eskuratzeko eta lau urtean oposizioa egitea ere gogorra izan da zinegotzientzat beraientzat; agintetik oposiziora pasatzea ez da gauza erraza. Jende berriarekin osatu behar genuen zerrenda. Gure asmoa ere bazen alderdia zabaltzea, herrira eramatea eta aire berria sartzea. Zerrenda osatzerakoan profil jakin batzuetako jendearen bila joan gara. Udaleko arlo bakoitzerako gai horretan jakituna den jendea behar genuen, eta lortu dugulakoan gaude.

EAJ agintean egotera ohituta dago, baina azken lau urteak oposizioan igaro ditu. Zein da legealdi honen zuen balorazioa.

Badira zentuzkoak diren gauza batzuk: etxe batean ezin duzu gastatu sartzen dena baino gehiago; udaletxe batean gauza bera gertatu beharko litzateke. Legealdi honetan asko gastatu da eta ez dakigu zer irizpiderekin. Eta kezkatuta gaude, ez dakigu-eta zer egoera ekonomiko aurkituko dugun. Orain lau urte kutxan ia zortzi milioi euro zeuden; Beheko plazako aparkalekuak egiteko dirua zegoen, frontoi berria bideratzeko ere bai. Lau urte pasa eta gero, zortzi milioi euro horiek gastatu egin dira eta inbertsio horiek egin gabe daude. Pertsonalaren gaiak ere kezkatzen gaitu. Egia da pertsonal gehiago behar zela, baina kontratazio batzuk ez dakigu nola egin diren; kanpoko jende asko sartu da eta herritar batzuek esan digute lehiaketak zeudenik ere ez zutela jakin. Udalak dituen lokal eta eraikinen gaia ere hor dago. Horiek guztiak mantentzeko dirua kutxa bakarretik ateratzen da. Zerbait



ARNAITZ RUBIO APREA

NOR DA?

55 urte ditu eta Donostian jaiotzen bazen ere, 4 urte zituela etorri zen Zumaiara. Irakaskuntza munduan egin du lan: “Orion urtebete egin nuen, baina bestela Zumaiako Herri Eskolan egin dut lan bizitza osoan”. Irakaslea izateaz gain, bederatzi urtez ikastetxeko zuzendaria ere izan da. Kirola gustukoa du, “baita etxean egotea ere: irakurri, irratia entzun, eskulanak egin...”. Hiru legealditan zinegotzia izan da Zumaiako Udalean, 1991tik 2003ra. “Esperientzia aberasgarria izan zen eta pertsona bezala asko hazi nintzen, nahiz eta momentu oso gogorak ere pasa behar izan nituen. Politikarako denbora bilatu behar duzu eta familiak sufritu egiten du. Baina kentzen dizun hori beste modu batean ere itzultzen dizu”.

egin beharra dago; agian alokairu sinboliko bat jarri lokalen erabiltzaileei.

Alkatezara heltzen bazarete, egoera ez da oso samurra izango. Krisiak gogor eragin du Zumaian ere.

Hausnartu egin beharko da. Ikusi beharko da gaur egun Udalak zer zerbitzu ematen dituen eta zein diren beharrak. Gastuak eta sarrerak aztertu beharko dira eta horren arabera lehenetsunak finkatu.

1. Montse Arana Perez
2. Eurne Egaña Manterola
3. Juan Carlos Zendoia Aizpurua
4. Ana Arranz Irigoien
5. Isidro Maria Fernandez Etxabe
6. Maitane Urbietta Aizpurua
7. Xabier Gallastegi Idigoras
8. Xabier Urrutia Elorza
9. Ane Miren Florez Tapia
10. Unai Manzidor Andonegi
11. Jon Joseba Iraola Rezola
12. Lore Esnal Laskibar
13. Montse Atxega Etxebeste

Hauteskundeetarako plangintza prestatu duzue. Zer puntu jasotzen dira?

Hirigintzaren beste ikuspuntu bat proposatu duzue. Eraikitzea bezala ikusi izan da beti, baina guk hirigintza ekologikoa edo sostengarria terminoa erabili nahi dugu. Hirigintza egin behar da, noski, baina pertsonari ere garrantzia eman behar zaio. Eta hor kokatzen da espazio publikoak zabaldu eta hobetzea. Jendea elkartzen diren lekuak zaindu behar dira, gustura egoteko. Zenbat eta jende gehiago egon kalean, orduan eta gehiago aberasten da herria. Arazo handia ikusten dugu etxebizitza eta aparkalekuen gaian. Etxebizitza gehiago behar badira, egingo dira, baina goazen aztertzeraz zenbat etxebizitza huts dauden eta zein den benetako eskaera.

Alde Zaharra ere erronka handia da guretzat. Gaur egun erdi hilda dago eta pena da. Lehen ere egin ziren zenbait lan hura berpizteko (plan bereziak, Eroski bat ere jarri bertan...), baina zerbaitekin beharra dago.

Kaleak txukun mantentzeko lanei ere garrantzia ematen diogu. Azken lau urteetan oso lan gutxi egin da eta Zumaiako leku asko zuloz josita daude. Iruditzen zaigu kaleak zikinak eta egoera txarrean daudela. Herria txukundu behar da; ez kaleak bakarrik, baita lorategiak eta plazak ere, baina beti jendearen inplikazioarekin.

Garrantzitsua ere bada instituzioetara jotzea diru laguntzak eskatzeko. Mugi zerbitzua jartzea beharrezkoa ikusten bazen,

“Hirigintza egin behar da, noski, baina pertsonari ere garrantzia eman behar zaio. Eta hor kokatzen espazio publikoak zabaldu eta hobetzea”

zergatik ez joan Foru Aldundira edo Eusko Jaurlaritzara laguntza eske? Eta berdin Oikiarako autobusarekin. Zergatik erosi estazio zaharraren eraikina? Zergatik ez saiatu akordio batera heltzen epe batean etxe horren erabilera herriarena izateko? Beste finantziario modu batzuk bilatzen saiatu behar dugu.

Inbertsio handirik jasotzen al duzue?

Frontoi luzearen auzia konponduta geratzea nahi dugu. Baina horretarako norbaitek proposamena aurkeztu behar du. Komentua ere hor dugu. Haurtzaindegia egitea ez dugu baztertzen: Zumaian haurtzaindegi bakarra izatea nahi dugu, ez bi.

Eta Torreberrirako zer proposatzen duzue? Gaur egun Gaztetxea hor dago.

Neurri batean, hor egiten diren ekitaldiak ez daude gaizki. Kexa batzuk jaso ditugu soinuagatik eta alkoholdun edariak zerbitzatzen direlako, baina hori kontrolatzeko gai badira...

Gure jarrera da beraiekin hitz egitea. Erabilera egokia ematen bada, arazorik ez dugu. Garbi dago gazteek leku bat behar dutela.

Komenturako zer planteatzen duzue?

Metro asko ditu, eraikin handia da eta ondo pentsatu behar da zer egin. Aterpetxe baten proposamena planteatzen zen, eta zerbitzu horren beharra ikusten dugu herrian. Baina ez da soilik orainari begiratu behar; etorkizunera begiratu behar da. Ikusiko da nola garatzen den proiektua, baina garrantzitsua da zer egingo den erabakitzea.

Krisi garaian gero eta zumaia gehiagok jo du Gizarte Zerbitzuen atea.

Arlo oso inportantea da. Langile gehiago ditu orain eta beharrezkoa zen hori nire usteetan. Gizarte Zerbitzuek gero eta gai gehiago biltzen ditu: dependentzia kasuak, egoitzak, adin txikikoen arazoak, etorkinak, emakumeen arazoak... Horra joaten den jendeak behar handiak ditu eta sail hori mimatu egin behar da.

Zuen asmoa irabaztea dela diozu. Zer uste duzu gertatuko dela?

Orain oso zatituta gaude eta hori ez da ona herriarentzat. Badakit utopia dela, baina gustatuko litzaidake herria denon artean gobernatzea. Ez da erraza izango ezker abertzalearekin akordioetara heltzea, are zailago azken lau urteetan gertatutakoarekin, baina Zumaiaren denon artean gobernatuko bagenu, hobe.

Montse Arana



**ONENA
EMATEKO GARAIA**



MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278

Maluta
Jatetxea • taberna



oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

Maxi
solarium

ileapaindegia
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea



Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

METRO
taberna



ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

✓ Eguneko menua.
✓ Asteburuetan txotx,
sagardotegiko giroan.



Muniosoro, 54
OIKIA
tel.: 943147891

muniosoro
Taberna - Jatexea

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK



Etengabeko garabi zerbitzua

636 887 812 (Zumaiá)
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaiá
Tel.: 943 861 363
zumaiá@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

OSKARBI
KIROLAK



Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA



OSTOLAZA ZUMAIÁ, S.L.

Joxe Mari Korta Industriegunea, A1 - 4, pat. 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibitokia, 1
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

Elkartu eta herri bezala erantzuteko garaia da

EZKER ABERTZALEA

Udal hauteskundeak ditugu datorren maiatzaren 22an, baina zoritxarrez, oraingoan ere **ez dira bidezko hauteskundeak** izango, denok ez ditugulako aukera berberak izango. Beste behin ere, askoren eskubideak urratu egingo dituzte, nahi dugun zumaiar guztiok **ezin izango dugulako aurkeztu**, nahi duguna ezin izango dugulako aukeratu zumaiar askok.

Ez da egoera berria, Espainiako sasidekrazia honen Alderdien legeak eragindakoa. Zumaiaiko Ezker Abertzalearen ahotsa Zumaiaiko Udalera eramateko, duela zortzi urte **Izustarri** herri plataforma sortu genuen, sasi

guztien gainetik, eta 2003tik 2007ra aritu ginen lanean; duela lau urte, berriz, **ANV**ren aterpean aurkeztu ginen, eta halaxe egin dugu lan legealdi honetan; azkenik, 2011. urte hasieran, Ezker Abertzaleak **Sortu** alderdi politiko berria sortu zuen; “Zutik Euskal Herria” adierazpenaren bidetik, barneko hausnarketa eta eztabaida luze eta sakonaren emaitza zen alderdi berria. **Ezker Abertzaleak urratsak egin ditu**, indar soberanistak eta ezkerrekoak elkartzeko, epe luzeko apustu estrategiko ba-

ten alde politikagintzan jarduteko. Zoritxarrez, ordea, politika egiteko eskatzen duten horiexek ukatzen digute politika egin ahal izatea, eta politika egiteagatik estu hartzen eta kartzelaratzen gaituzte. Alfer-alferrik, ordea, **Ezker Abertzalearen apustua sendoa, irmoa eta luzera begirakoa** baita.



Nahi dugun zumaiar guztiok ezin izango dugu aurkeztu

Duela lau urte apustua egin genuen Zumaian ere gauzak aldatzen hasteko, eta garairik oparo eta errazena egokitu ez bazaigu ere, gutxiengoan egonik gauzak nahi bezala egiterik izan ez badugu ere, emaitzak hor daude, **aldaketa nabarmena da Udalean eta herrian**, orokorrean eta arloz

arlo. Orain zer eta hori gauzatu duten gure zinegotziei ukatu egiten diete lanean jarraitu ahal izatea, ezin omen dute berriz aurkeztu, nahita ere.

Indarrak elkartzeko ordua da. Asko gara abertzale eta ezkertiarrek, zumaiar asko gara ildo eta lan politiko berri honetan sinestun dugunak eta bultzatu nahi dugunak. Itxaropenari eta Euskal Herri berriari ateak zabaltzeko, Zumaiairen eta zumaiarren alde lanean jarraitzeko, elkartu eta egin dezagun aurrera.

Bozkatu



aralar

IREKI

BIDEA

EZKERRARI

**BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI**

Aitor **LEIZA ALBERDI**
ARALARren zerrendaburua

“Denon artean erabaki beharko genuke **zer nolako Zumaia** nahi dugun etorkizunerako”

Legealdi gorabeheratsua izan da amaitzear dagoen hau Aralar alderdiarentzat. Ezker Batuarekin koalizioan aurkeztu zen 2007an. Legealdi erdian Ezker Batuako zinegotzia Alternatibara pasa zen eta urtebete falta zela Xabier Olaizolak utzi behar izan zuen lan kontuengatik. Azken urte honetan Aitor Leizak hartu ditu zinegotziaren lanak eta bera izango da maiatzaren 22ko udal hauteskundeetan alderdiaren zerrendaburua. Bakarrik aurkeztzen den lehen hauteskundeak dira Aralarrentzat eta eserlekua eskuratuz gero giltza izan daiteke hurrengo legealdian.

Nola bizi izan duzu zure lehen legealdia?

Legealdiko lehen hiru urteetan Ingurumen eta Hirigintza-ko aholkulari aritu naiz. Cristina Forcada zen koalizioko zinegotzia batzorde horietan, nik iritzia ematen nuen eta hantxe bukatzen zen nire ardura. Zinegotzia izan naizenetik hartu dudana erabaki gogorrena Zumaia Lantzen hiru milioi euroko abala ez ematea izan da. Nola eman baiezkoa gure ustetan Zumaia Lantzen desegin egin behar denean? Hasierako koherentzia mantendu nahiko bagenu, ezin genuen baiezko bozka eman. Gatazka politikoaren inguruko gaiak landu direnean oso deseroso sentitu izan naiz. Beñat Lizeagaren gaian, adibidez, nola ez dut Beñaten alde egingo? Ezagutzen dut, bere familia ere bai, eta pilota eskolan haren irakaslea izan naiz. Laguntzearen alde nago, baina gauza bat da laguntzea eta beste bat Udalak gastu guztiak bere gain hartzea. Dinamika arriskutsu batean sar gaitezke. Uste dut gai horiek beste maila batean konpondu behar direla, ez udaletxean.

Zer proposatzen du Aralarrek legealdi berrirako?

Herriarrek parte hartzen segitzea oso inportantea iruditzen zaigu. Parte hartzeko prozesuak zabaldu behar dira gai askotan herriak zer pentsatzen duen jakiteko. Herriaren ordezkariak gara Udalean gaudenak; herriarentzat egin behar dugu lan eta horretarako beharrezkoa da jakitea herriak zer dioen. Herriak zehazten duen ildotik joan behar dugu.

Gardentasuna ere garrantzitsua da guretzat. Aralarrek salaketa bat jarrita dauka Azpeitiko epaitegian Udal Gobernuaren aurka: gai baten inguruko informazioa eskatu



ARNAITZ RUBIO APREA

NOR DA?

1971n Zumaian jaioa, naturaren inguruan egindako lanagatik da ezaguna. Horren erakusgarri da 24 urte inguru daramatzala Zumaiako Natur Taldean. Arrauna, pilota, hondartzako futbola edo mendia zalea, aurreko legealdian sartu zen udaletxean, lehenbizi aholkulari eta azken urtean zinegotzi. "Nahiz eta politikako giro hori oso gogoko ez dudana, Aralar-Ezker Batua koalizioa aurrera eramateko izena eman nuen. Beraien ezkerreko idealek nireekin bat egiten zutela ikusi nuen. Jakin izan banu zinegotzi bihurtuko nintzela, agian ez nieke baimenik emango!", egiten du barre.

zuen orduko zinegotzi Xabier Olaizolak eta Gobernuak behin eta berriro ukatu egin zion. Informazio bat ukatzen zaizunean zerbait gaizki egiten ari diren susmoa hartzen da. Eta hala bada, salatu egin behar da. Hori da zinegotzi baten ardura.

Beduako hezegunearen auzia konpontzearen beharra ere jasotzen dugu. Bere unean Beduako eskuinaldeko lursail batzuk industrigunea eraikitzeke saldu ziren. Lursail horietako jabe batek salaketa aurkeztu zuen orain 40 urte eta oraindik gaia ez da konpondu. Lursail horietako batzuk padura bezala gordetzeko erabakia hartu zenean auzi ho-

1. Aitor Leiza Alberdi
2. Joseba Jakobe Ossa Altzibar
3. Iñaki Olazabal Eceiza
4. Maria Izaskun Serna Aguirre
5. Miren Itziar Egiguren Egiguren
6. Itsaso Ezenarro Egurbide
7. Imanol Juaristi Loidi
8. M. Arantzazu Eizagirre Aizpurua
9. Jesus Maria Gorostidi Orozko
10. Jose Maria Agirre Urbieta
11. Mia Helka Maria Rissanen
12. Dabi Olabarri Aldape
13. Miren Edurne Alegria Aierdi

rrekin egin zen topo; epai guztiak, gainera, jabekide horren alde atera dira. Europatik agindu bat heldu zen eremu horri (Garbigunetik zuhaitz lehorretara doana) babes maila handiagoa emateko. Iaz alkate dekretu baten bidez diru kopuru bat ezarri zen auzia konpontzeko. Baina 2010. urte osoan ez zen diru hori erabili. Eta hori da eskatzen duguna, ezarritako diru kopuru hori behar bezala erabiltzeko konprometitzea. Zumaia hezegune baten gainean dago eraikita eta geratzen diren apur horiek gorde egin behar dira.

Udalak dituen jabetza guztien inbentario bat egitea ere proposatzen dugu. Lokalak, lursailak, artelanak, herri bideak, Udalarenak izan gabe ere babestu behar diren gauzak... Hori dena bildu behar da. Udalak lokal mordera du eta gure ustez batzuk ez dira behar bezala erabiltzen. Inbentario honek hori dena mahai gainean jarriko luke.

Kirol arloan ere gabezia batzuk sumatzen ditugu eta horiek ere mahai gainean jarri behar direlakoan gaude. Kiroldegia, itsas kiroldegia, surfeko lokala... horien guztien erabilera egokia al da? Zergatik ez hitz egin ikastetxeekin eta beraien kirol instalazioak herriari zabaldu egunean ordu batzuetan? Horretaz ere hitz egin behar dela uste dugu.

Zein ideia dituzue hirigintzaren inguruan?

Programan dioguna da eraikitzeako erri-

mo honekin jarraitzen badugu, hemendik 20 bat urtera Zumaia lurrik gabe geratuko dela. Gobernu honek etxebizitza hutsen azterketa egin zuen eta horietan eskua sartu behar da. Gai korapilatsua da, baina heldu beharrekoa. Parte hartzeko prozesu baten bitartez Zumaia lurralde antolaketa nolakoa izan behar duen aztertu beharko litzateke. Denon artean erabaki beharko genuke zer nolako Zumaia nahi dugun etorkizunerako.

Komentua edo Foronda bezalako eraikinentzat zer bait proposatzen al duzue?

Zumaiaiko eragileekin batera erabaki behar da zer egin behar den eraikin horiekin. Kultur mahaiak egin dira orain gutxi eta horiei jarraipena eman behar zaielakoan gaude, eta han plasmazten diren ideiak Udalera eraman. Komentuaren kasuan, behin erabakitzen denean zer erabilpen eman behar zaion, lanei martxa eman beharko litzateke. Badakigu kaperan kafe antzoki moduko bat egiteko asmoa dagoela. Ba, has daitezela horretarako lanak. Krisi egoera honetan ezinezkoa izango da dena batera egitea, baina Udalak urtero diru kopuru bat bideratu beharko luke bertara.

“Beduako hezegunearen auzia konpontzearen beharra jasotzen dugu. Iaz diru kopuru bat onartu zen alkate dekretuz eta hura erabiltzea eskatzen dugu”

Zaborren kudeaketaren gaia puripurian dago. Zer dio Aralarrek gai honen inguruan?

Gure alderdiak Usurbilgo itunaren alde sinatu zuen. Objektiboki hartuta, nahiz eta lan gehiago ematen duen, atez atekoak ematen ditu emaitza onenak, birziklatze maila handiena ematen du eta. Zorritzarrez, jendea birziklatzera behartzen zaionean ematen dira emaitza onenak. Gaur egungo sistemarekin jarraitzen badugu derrigorrez egin beharko da errauskailua. Zaborren bilketa ordaintzen jarraitu beharko genuke, baita errauskailua eraikitzeke eta honen mantentze lanak ere. Hori bukatzeko era bat izan daiteke atez atekoa sartzea Zumaian.

Maiatzaren 22ra begira, zenbat zinegotzi lortuko dituzuela uste duzue?

Objektiboki, uste dugu zinegotzi bat lortuko dugula. Ez badugu lortzen seinale izango da jendea ez dela gutaz fidatzen. Aurreko hauteskundeetan koalizioan joan ginen eta ez dakit horietatik zenbat ziren Aralarrenak eta zenbat Ezker Batukoak. Hauteskunde hauek argituko dute hori. Garbi daukaguna da giro politikoa hobetu beharra dagoela. Ez dugu beste alderdiekin inongo haserre edo liskarrik izan nahi.

Pilar **ETXABE**

HAMAİKABATEko zerrendaburua

“Herriarrari **erraztasunak** eman behar zaizkio, zerbitzu guztiak eskura jarritz”

Azken unera arte gogotik egin behar izan du lan zerrendako 16 izenak osatzeko. “Gaur egun oso zaila da jendea politikara erakartzea, are zailagoa alderdi handietatik kanpo”. Alderdiak alde batera utzi eta independentez osatutako zerrendak nahiko lituzke berak udaletan: “Udaletxe batean ez da politika behar, politikatik aparte gauzak egin daitezkeela sinesten duen jendea behar da”.

Zergatik erabaki duzu zeure burua alkatetzarako aurkeztea?

Ikusten dudalako gauza asko egin gabe gelditu direla, eta beste batzuk ez direla hain ondo egin. Beti dagoelako zer hobetu eta zertan lagundu. Beti egon naiz elkarte askotan eta gustatzen zait parte hartzea.

Lau urte hauetako esperientziatik zer ondorio atera dituzu?

Ni gustura nago nire departamentuetatik atera diren proiektuekin, adibidez, geoparkea eta kulturako zenbait proiektu, nahiz eta gero dominak beste batzuek jarri dituzten. Alde horretatik, esperientzia positiboa izan da, nahiz eta amaierako urte eta erdian dena geldituta egon den. Eta pertsonalki, hasieran sekulako ilusioa nuen, baina gero esperientzia garrantza izan da. Dena den, amaieran berriro ilusionatu egin naiz.

Datozen lau urteetarako zer proposatzen diezu zumaia-rirei?

Gabezia izugarria da frontoirik ez izatea eta horri irtenbidea jarri behar zaio; Behoko plazan ere lurrazpiko parkina beharrezkoa da, besteak beste, Odietako etxe berrietako garajeek sarrera izan dezaten; sinesten dut herri eroso, irisgarria izan behar duela Zumaia, arlo guztietan: herriarrari erraztasunak emanez, zerbitzuak eskura jarritz, kanpotarrari harrera ona eginez; merkataritza indartsua behar dugu; aparkalekuak, kanpotarrak arazorik gabe etor daitezten eta herrian dirua laga dezaten... Beti proiektu fisikoei begiratzen diegu, eraikinei. Baina, adibidez, herriak behar dituen etxebizitzak bideratuta daude, sozialak eta alokairuzkoak ere bai. Etxe piloa egingo dira Zumaian eta uste dut ez direla gehiago behar. Premia handia dago, ordea, gizarte zerbitzuetan, daukagun krisiarekin gero



GORKA ZABALETA

NOR DA?

1958an jaio zen, Zumaian. Administraritza ikasi zuen eta orain bidaia agentea izateko titulua eskuratu du. Praktikak ari da egiten bidaia agentzia batean, Donostian. Lau urtez izan da zinegotzi Zumaia Udalean. “Kulturazale amorratua naiz: zinema, museoak, artea... Bidaiatzea ere asko gustatzen zait. Bidaiatuz ohartzen zara besteak nola bizi diren eta haien kulturetatik ikasteko aukera ematen dizu. Oso aberasgarria da”, Herri bakoitzak bere izaerari eutsi beharko diola eta kultura propioa belaunaldiz belaunaldi transmititu behar dela dio: “Pena handia ematen dit gauza asko galdu direlako”.

eta jende gehiagori lagundu beharko zaiolako, zoritxarrez. Eta etorkinak Zumaian bizi eta integratuko badira, bultzada bat eman nahiko nieke.

Oposizioaren kritika nagusia izan da Udalak gastu arrunta gehiagi igo duela. Ados al zaude?

Nik uste dut diru gehiagi gastatu dela ikerketak eta azterketak egiten. Edo zentzurik ez duten bestelako proiektutan. Adibidez, baratze ekologikoa. Alferrikako gastu asko egin dira eta kaleko zuloak ez dira konpondu. Eta jendeak kaleko zuloak ikusten ditu. Aurrera begira, badaude Zumaian lan garrantzitsuak egiteko –igogailuak edo eskailera mekanikoak Larretxon

1. Pilar Etxabe Iriondo
2. Miren Izaskun Trabudua Llona
3. Jose Luis Martinez Lopez
4. Jose Manuel Uribarri Fernandez
5. Begoña Ibisate Arrondo
6. Francisco Javier Larrinaga Mendez
7. Inmaculada Concepcion Urteaga Izagirre
8. Jose Manuel Uribarri Rodriguez Tarduchi
9. Joseba Andoni Coto Ugalde
10. Maria Carmen Izagirre Zabala
11. Iñaki Galdos Ibañez de Opacua
12. Maria Jesus Lekunberri Ormaetxea
13. Xabier Irazabal Basabe

edo San Josen—, baina ez dut uste lau urte hauetan egingo direnik, besteak beste, Udalaren egoera ekonomikoa oso txarra delako.

Beraz, herriak ez du inbertsio handitarako aukerarik?

Zorpetuz gero bai, baina beharrezko proiektua izan dadila. Adibidez, lurrazpiko aparkalekua egiteko.

Komentuarekin zer egin?

Ez zait egokia iruditzen hutsik edukitzea. Aterpetxearen eta jatetxearen ideiak egokiak iruditzen zaizkit, baina agian beste buelta bat eman behar zaio.

Beheko estazioarekin?

Hori erostea oso zaila da, Jaurlaritzak ez duelako saldu nahi. Andregai asko ditu, eta bat da ZIIZek proposatu duen industria ondarearen museoa. Proiektu konpartitua ere izan daiteke. Nik hor turismo bulegoa ondo ikusten dut. Beste proiektu bat ere badago arte mundukoa. Penagarria da hori hutsik egotea. Tratu bat egin beharko litzateke Jaurlaritzarekin.

Foronda?

Forondaren etorkizunaz ez da sekula hitz egin Udal Gobernuan, ez behintzat ni egon nintzen garaian. Taldeentzat bai, baina nola kudeatu? Talde bakoitzak izan behar du arduradun? Atezain bat egongo da? Gero, etxe horrek sarre- oso polita dauka eta nik libre mantenduko

nuke ezkontzak egiteko eta baita hileta zibilak egiteko. Atezain baten beharra ikusten dut nik.

Torreberri?

Ez nago ados Torreberri-ri eman zaion erabilerarekin. Hasieratik dantza eskolarako ikusten nuen, goitik behera. Libre utz zitekeen beheko solairua erakusketak edo dena delakoak antolatzeko. Baina Gaztetxea hor ez dut ikusten. Herrian gaztetxe bat edukitzea ondo iruditzen zait, baina izan dadila irekia eta nahi duen orok izan dezala sartzeko aukera. Gaur egun hor sar daiteke bakarrik ideologia politiko jakin bat duenak. Hasieran Erkiben biltzen zen gazte pilo hura, desagertu egin da eta biko taldea gelditu da. Talde horrek kultur elkarte gisa antolatu eta lokal bat behar duela? Ados. Baina Torreberri gaztetxerako ez. Eta are gutxiago hor egin diren legez kanpoko obrak kon- tuan hartuta. Taberna, esate baterako.

Turismo mailan, esan genezake Geoparkea ia-ia zure proiektu pertsonala izan dela...

Bai, eta azkenean oposizioaren laguntzarekin atera genuen aurrera. Geoparkea oso garrantzitsua da, mapan kokatzen gaituelako. Lau urte hauetan Geoparkearen mapa Getariaraino eta Izarraitzeraino zabaltzea da nire helburua.

“Ez nago ados Torreberri-ri eman zaion erabilerarekin. Dantza eskolarako ikusten nuen nik, goitik behera”

Beste ideien bat ba al daukazue turismo arloan?

Pil-pilean daukagun beste gaia da golf zelaiarena. Baina ez turismorako bakarrik. Zumaiarrek ere kirola egiteko beste aukera bat izan dezaten eta eskola kirolean ere hurrek golfa ezagutzeko aukera izan dezaten. Karakas baserriaren lurretan egingo litzateke, bederatzi zulokoa. Hori egin ahal izateko lur eremuari izendapena aldatu behar zaio. Udalak egin beharko lioke eskaera Jaurlaritzari, baina gobernu honek ez du nahi.

Mugi zerbitzua mantentzearen alde al zaudete?

Idea bezala, oso ondo dago, baina Zumaiaren- tzat garestiegia da. Dirua soberan izango bage- nu, mantentze genezake. Baina krisi egoera hone- tan, hainbeste diru horretara bideratzea...

Zaborren kudeaketarako zer eredu proposatzen duzu?

Nire apustua da gaur egungo bost edukiontzien eredu mantentzea, baina ahalegin guztiak egi- tea jende guztiak behingoz ikas dezan zaborrak ondo sailkatzen eta behar den lekuan botatzen. Ez da sistema polizial bat jarri behar, atez ate- koa bezalakoa, familia bakoitzak sortzen duena kontrolatzen duena. Hori ez dut nahi. Eta he- rritarrek ere ez.

ZURETZAT LAN EGIN NAHI DUT QUIERO TRABAJAR PARA TI



PILAR ETXABE

ZUMAIAKO ALKATETZARAKO
HAMAİKABATEN HAUTAGAIA

CANDIDATA A LA ALCALDÍA
DE ZUMAIA POR HAMAİKABAT

hamaikabat.com

BOZKATU  VOTA

GAUZA TXIKIEN INDARRA
EL PODER DE LAS COSAS PEQUEÑAS



hamaikabat

Emiliano **CABAÑAS GONZÁLEZ**
PSE-EEko zerrendaburua

“Beste inbertsio batzuekin hasi aurretik, abian daudenei **soluzioa eman** behar zaie”

Hirugarren urtez jarraian, Emiliano Cabañas izango da alderdi sozialistaren zerrendaburua. Ez zuen jarraitzeko asmorik, erretiroaz gozatzeko asmoa zuen, baina alderdiak eskatuta beste legealdi batean sozialisten bozeramaile posturako aurkeztuko da. Aurtengo zerrendan aurrekotan baino zumaia gehiago izango direla dio.

Nola baloratzen duzue aurreko legealdia?

Erdian egotea tokatu zaigu. Hala izan zen aurreko legealdian EAJ eta EAren hausturaren ondoren eta orain ere antzera gertatu da, EAK bere haustura propioa izan delako. Gure asmoa izan da udal kudeaketa ahalbidetzea eta gai batzuetan horretarako aukera eman dugu. Baina ez da erraza izan Udal Gobernuak ez duelako konturatu nahi izan gutxiengoan zegoela. Gobernukideek ez dute kontsentsua bilatu nahi izan oposizioarekin.

Zein uste duzue dela Zumaiaren egoera gaur egun?

Aurretik zetozen lanei jarraipena eman zaie eta beste guztia Zapateroren bi planen ondorioa da. Alondegia aurretik bideratuta zetorren, Jadarre ere bai. Aldatu den gauza bakarra da lehen ia 8 milioi euro genituela eta zenbait lan egiteko aukera zegoela. Lau urte geroago, soberakina 500.000 edo 600.000 eurokoa da, lanak ez dira egin eta Zumaia Lantzenek itzuli behar dituen zenbait mailegu ditu. Hori oso negatiboa da. Ez bakarrik lanak ez direlako egin; Udala deskapitalizatu dutelako ere bai. Legealdi berrian herstura ekonomikoko politikak bultzatu beharko dira. Era horretan inbertsioak egitea ahalbidetzen duen autonomia ekonomikoa berreskuratuko litzateke.

Zer proposatzen du alderdi sozialistak datozen lau urtetarako?

Aurrez aipatutako autonomia ekonomikoa bilatu behar da ahalik eta azkarren, baina udal kudeaketari galerarik egin gabe. Abian dauden proiektuak amaitzea proposatzen dugu: Puntanoeta, Jadarre, frontoi luzea, Gurrutxaga plaza... Eta Puntanoetako eraikinetan Eusko Jaurlaritzaren partaidetza lortu zen bezala, beste proiektuetan ere antzera jokatzea proposatzen dugu, hau da, finantziario iturriak bilatzea.



ARNAITZ RUBIO APREA

NOR DA?

63 urte beteko ditu maiatzean. Casasola de Arion (Valladolid) herrian jaio zen eta 1971n etorri zen Euskal Herrira. "1969an herrietan zeuden telefono lokutorioak saldu zizkion Diputazioak Telefonari. 1971. urte hartan ikastaro bat gainditu genuen guztiak hona bidali gintuzten". UGT sindikatu eta alderdi sozialistan lanean aritu da urte hauetan guztietan. 2000. urtean hartu zuen erretiroa ERE baten ondoren eta hiru urte geroago, alderdiak eskatuta, udal eta foru hauteskundeetara aurkeztu zen. Bi legealdi bete ditu Zumaiako Udaleko zinegotzi eta Gipuzkoako Batzar Orokoretako batzarkide. Mendingo ibiltzea du gogoko: "Askatasuna sentitzen duzu hor; ezerk edo inork ez dizu trabarik egiten".

Beste inbertsio batzuekin hasi aurretik, abian daudenei soluzioa bilatu beharko zaie.

Frontoi luzearen gaiari dagokionez, pentsatzen dut epe motxean erantzun positibo bat izango dela. Eta bestela bilatu egin beharko da, gehiegi luzatzen ari da eta. Hitzarmena Ricardo Peña alkate zela sinatu zen eta frontoia lehenbailehen burutu behar da.

Santiagoko hondartzari ere soluzioa bilatu behar zaiola uste dugu. Hondartza txukundu beharra dago nahitaez eta hor behar-beharrezkoa izango da instituzioen arteko kola-

borazioa. Gobernu Zentralak badu proiektu bat dagoeneko. Ikusiko dugu zenbat diru den beharrezkoa. Agian beste proiektu batzuk denbora batean alde batera utziaz Santiagokoa gauzatzea izango da.

San Jose kaleak dituen beharrak ere jasotzen ditugu. Igogailua jartzea proposatzen da eta horretarako agian interesgarria izan daiteke finantziazioa bilatzea. Eta garajerik ez badago ere, beharrezkoa ikusten dugu oinezkoentzako bideak hobetzea.

Krisiak gogor eragin du Zumaian 2008tik hona. Zer egin dezake Udalak egoera hobetzeko?

Zumaia bi industrigune egiteko gai izan da: Joxe Mari Kortata eta Estaziokoa. Xeykoa ere asko hobetu da. Horrelako soluzioak bilatu beharko dira: lursailak erosi eta enpresei Zumaian ezartzeko aukera eman, gero hemen lanpostuak sortzeko. Baina Puntanoetan ezik, Udalak gaur egun ez du metro koadro bat bera ere etxeak egiteko edo enpresa bat bertan ezartzeko. Aukerak ez dira handiak, Zumaiak ez baitu eremu handirik, baina soluzio ahalik eta onenak bilatu beharko dira. Zumaiak ezin du geldirik egon, gizarteak berak eskatuko dio eta mugitzea.

Turismoa ere motor ekonomiko bihurtzeko daiteke. Aberastasuna ekartzen du eta ez du azpiegitura handirik eskatzen. Turismoari begira inbertsio gutxi egin dira Zumaian. Komentuan aterpetxea jar daiteke; lursail bat bila daiteke gero enpresa batek bertan hotel bat eraikitzeko. Kanpina egiteko proposamena ere badago Basusta inguruan. Zumaiak aukera handiak ditu eta ahalik eta gehien esplotatu behar dira. Turismo mota egonkorragoa eta aldi berean ekonomiko-ki ziurtasun ekonomiko handiagoa ematen duena bilatu behar da.

Turismoari lotuta, golfeko zelaia egiteko proiektua dago Karakas inguruan. Legealdi osoan izan dugu esku artean, baina Udal Gobernuak behin eta berriro ezezkoa eman dio. Turismoari begira aukerak ematen ditu proposamen honek; aisialdirako aukera hori eskatzen duten bisitariak badira.

Krisi garaian gero eta jende gehiago inguratu da Gizarte Zerbitzuetara.

Hori ez da ukitu behar; ahal den moduan mantendu beharra dago, eta dirurik ez badago finantziazioa ahal den moduan bilatu behar da, harri azpian bada ere bai. Gaur egun gero eta beharrezkoagoak dira zerbitzu hauek eta kontuan hartu behar da

1. Emiliano Cabañas Gonzalez
2. Paloma Heredero Negro
3. Donato Gasco Aldonza
4. Felipe Gutierrez Servan
5. Catalina Galiano Garrido
6. Enrique Rubio Mendez
7. José Luis Elosua Sanchez
8. Laura Purificación Martín Martín
9. Iñaki García Horrillo
10. María Asunción Prego Zumeaga
11. Andrés Alonso Rodriguez
12. Gabriela Estévez Baez
13. María Milagros Rivera Mera

“Santiagoko hondartzari soluzioa bilatu behar zaio. Txukundu beharra dago nahitaez eta hor beharrezkoa izango da instituzioen arteko kolaborazioa”

krisiak luze joko duela. Kudeaketa ona egin behar da eta diru kopuru berarekin harantzago joaten saiatu, eta ezin bada, bideratzen den kopurua handitu beharko da.

Kultura edota euskararen inguruan zer duzu esateko?

Egoera nahiko onean daudela uste dut. Onena izango litzateke bideratzen diren kopuruak ez jaiste eta ahal izanez gero mantentzea edo handitzea. Baina bizi dugun egoeran lehentasunak jarri behar dira. Orokorrean diot. Pentsatzen dut euskarak Zumaian ez duela arazo handirik; ez dago inondik inora mehatxuan eta asko erabiltzen da. Kultura modu egokian kudeatu da eta uste dut nahikoa kultur ekitaldi izaten direla herrian; era guztietakoak, gainera. Tradizioak ere zaintzen dira. Dirua kostatzen da, noski, baina horiek jasateko gai bagara, aurrera.

Zer emaitza lortuko duzuela uste duzue?

Mantendu soilik ez, hobetzeko itxaropena daukat. Baina alderdi guztiek gauza bera nahi dute eta hautesle kopurua bera da; ez dago denon artean banatzeko bozka gehiago. Ez dakit zer gertatuko den, zalantzarik bateriko panorama baten aurrean gaude, eta gehiengo bat lortzeko kontsentsurik lortzen ez bada, kudeaketa zaila izango da datorren legealdian.

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

La
Prima Vera
pizzeria



Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



RUBIO
Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERA,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

Talaxia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



TALAI-PE
jatekxeta-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAILA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondok (hodilloa)
Saltxitrak, oilaskok...
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905



Txingurri
Loradenda

Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

*Eraikitzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketak
*Alo, zokalo, tarima eta pertsiarik
*Armaru enpeltatuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



UZKUDUN
taberna-jatetxea

Gosariak-Pintxoak-Kaxuelitak-Eguneko menua-Asteburuko menua-Merendak-Plater konbinatuak-Errozkoak-Afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349



Xanti
Arantxa Azkue

Amalako plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urtza Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAILA

Maitasun Ukananga



zapateixa
Konponketak

Oinetako eta erropa konponketak
Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumaila • 943 861 252 • 652 727 740



Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumaila tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAILA MOTOR

Santiago auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



ZUMAILA
AUTO-ESKOLA

• Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
• Praktika eta azterketak Azpeltian
• GURE HELBURUA:
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAILA

Zumaia optika



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

MAIATZA-EKAINA

DEIALDIAK

ZUMAIAKO ARGAZKI LEHIAKETA.

Zuri-beltzean. Gaia: GARRAIO BIDEAK. Lanak aurkezteko epea, ekainaren 23a. Informazioa kultur etxean (943861056 / foronda@zumaia.net)

UDALEKU MUSIKALAK: Uztailaren 18tik 29era. Informazio orriak kultur etxean apirilaren 26tik aurrera.

TURISMO IRTEERAK:

informazioa 943143396.

ASTE BERDEKO ARGAZKI

RALLYA: maiatzaren 28an , 08:00etatik 15:00etara.

MAIATZA

Osteguna, 12

21:45ean Aita Marin, zine forum "BURIED"

Ostirala, 20

20:00etan Alondegian, antzerkia: Kandidate Uranga "MIRANDEREN INGURUAN"

Igandea, 22

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: "OGRO TXIKIA"

Osteguna, 26

21:45ean Aita Marin, zine forum "COPIA CERTIFICADA"

27tik 29ra

Estazio auzoan, SAN PANKRAZIO JAIK

Ostirala, 27

20:00etan Alondegian, antzerkia: "XENTIMORIK GABE"

Larunbata, 28

Aste Berdea – Argazki Rallya

Igandea 29

Ludotekatik, familia irteera

EKAINA

Ostirala, 10

AUDIENCERen kontzertua ekainaren 10ean Aita Marin

Larunbata, 18

19:30ean komentuan, BEHEKO PLAZA eta SAN PEDRO Abesbatzen kontzertua.

Igandea, 19

13:00etan, Europako Musika Egunaren bezpera ospatzeko, RIBAFORADAKo Musika Bandaren kontzertua .

Asteartea, 21

19:00etan Musika Eskolaren ikasturte amaierako jaialdia Maria eta Josen

Osteguna 23

22:00etan Sanjuaniturrin, San Juan suak Zumaia Txistulari Bandarekin eta Musika Eskolako euskal dantzariekin.

Ostirala, 24

18:30ean, CAPOEIRA Topaketak

Igandea, 26

ARTISAU AZOKA.

SLOW ZUMAIA EGITARUA

Osteguna, 2

Ostegun guztietan bezala pintxo + pote = 1,5 euro tabernetan.

Ostirala, 3

Pintxo lehiaketa

19:00etan, pintxoak ekarriko dira Kofradiara; amaieran, epai-mahaia irabazlea erabaki dezan.

18:00 - 19:30 Zumaia sukaldariak pintxoak prestatuko dituzte slow food produktuekin. Salgai jarriko dira: bi pintxo euro batean.

Sari banaketa: 20:00etan.

20:00etan *flysch opilen* dastaketa errotaren eskutik.

Musika: Jon Urbieta

Osteguna, ostirala,

larunbata, igandea

Bakoitzak menu bat prestatu: arauak

- Plater bat txibia eduki behar du

- Postreak, *flysch opila* eduki behar du

Larunbata, 4

Txibiaren eguna. Kirol portuan egingo da: *txibi-txill out* jai.

Laguntzaile: Xantixo Kluba.

Goizean goiz: gazteak txibiaren arrantza ikasiko dute.

Dekorazio: karpak, *chill out* gunea.

Giroa: Billie jeans-en kontzertua.

Txibi brotxetak salduko

dira, euro batean.

Edaria: sagardoa edo txakolina.

Edalontziak berrerabilgarriak izango dira.

Igandea, 26

Artisau + nekazaritza azoka,

goizez beheko plazan. Lehengo

urtean bezala, gastronomia

postuak egongo dira azokan.



Maiatzak 11, asteazkena

19:00etan, Oxford erakusketa aretoan, Udalak eta Baleiek antolatuta

“Oroitzapenen alondegia” argazki erakusketa.

Gorka Zabaletaren argazkiak



Maiatzak 27, ostirala

19:00etan, Algorri Interpretazio Zentroan

ZIIZen hitzaldiak
“Ontzigitza Zumaian, XX. mendean”



Zumaia Industria-Infurriaren Informazio Zentrua

TXALAPARTA
OPARIK

Angelo Sorata, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
fax. 943 430 637


KANTAU
BERNA

Pintxoak · Plater konbinatuak · Kazolatuak
Pintxos · Platos combinados · Cazuelitas

Kantauri plaza, bajo 4 - tel. 943 575 840

Egin zaitetz
BALEIKEko
bazkide

BALEIKE
GERRAKO BOST
DESAGERTU
AURKITU DITUZTE



IRAKURLEA

Irakurleak idazle nahi zuen izan.

Ehunka, milaka liburu irakurri ondoren, urtetan pilatutako jakintza idatziz jasotzea erabaki zuen, eta ordura arte irakurtzeko izandako grinaz ekin zion idazteari.

Orrialde zuriak irensteko makina bilakatu zen. Ohartzera lehen liburua argitaratu zuen, letra ñimiñoz betetako ehunka orrialde. Arrakasta itzela izan zuen liburu hark: “mendeko liburua” izendatu zuten kritikariek, eta, ondorioz, gogo gehiagoz ekin zion idazteari.

Egunak idazten ematen zituen, eta, gauak, egunez idatzitakoa zuzentzeko erabiltzen zituen. Ez zuen beste ezertarako astirik hartzen: idatzi, zuzendu, argitaratu, promozionatu, idatzi, zuzendu...

Bizitza amaierarik gabeko liburu bilakatu zitzaion, eta, ohartzera, bere egunerokotasunean izandako gauza txikiak faltan bota zituen: lagunekin egotea, pasieran aritzea, mendira joatea, eta bereziki, gehien maite zuena egitea: irakurtzea.

Idazleak irakurle nahi zuen izan.



ARRANDEGIA

Izustarri, 2-4

Tel. 943 860 750

*Ankera zabala bertako
arrain freskoan*



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako iaki goxoak





Erosketak egiteko, Aisialdirako eta Zerbitzuetarako Plano-Gida

DAGOENeko KALEAN!!!

neKAr
Kale-planoa
Kale-plano birtualak
www.nekar.com
Buber Sarri - Tresna Informatikorik onena



zumartian

Apirila Maiatza

Udaberria Zumaian

%05

**eko
deskontua
ezustean**

- Deskontua astean behin ezarriko da aleatorioki.
- Deskontua erosketan guztietan aplikatuko da zordundutako eta atzeratutako ordainketetan izan ezik.
- Egindako erosketan/Kontsumizioan aplikatuko da deskontua.



Zumaia Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
INDUSTRIA, ENERGIJA, TURISMOA
ETA LANBIDEA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
ENERGÍA, TURISMO Y TIEMPO LIBRE

